

1844-1853, Lapurteraz idatzitako gutunak

(Letters in Basque from Labourd, 1844-1853)

Egaña Goya, Miren*

Aranzadi Zientzia Elkartea

Zorroaga gaina, z/g

20014 Donostia

* Eusko Ikaskuntza

Txosten honen bidez, 1844 eta 1853 urteen artean euskarak idatzitako gutun pribatu batzuen berri eman nahi izan dugu. Gutunak lapurteraz idatzita daude eta itsasontzi batean lan egiten zuen Ziburuko marinela bat zuzendurik daude. Frantziak, Kanadako urez inguratutako dituen St Pierre eta Mikelon irletako artxibategian aurkitu genituen eskuitzak. Gutunak, lagunek eta familia artekoek bidali zizkiotzen Jean Pierre Etchepareri eta eguneroko gora beherak azaltzen dira, hala nola zer bidaltzen dioten, eskerrak ematen dizkiote bidalitako diruagatik, ahaideen osasunen berri ematen, etab... Eskutitzak ondo kontserbatuak zeuden fotokopiari genituenean 1991ean. Badakigu geroztik artxibategiak sua hartu zuela, baina ez dakigu zer gertatu zitzaien eskuitz hauei.

Giltz-Hitzak: Lapurtera. Gutuna. Arrantzalea. Janzkeria. Urruña. Ziburu. St. Pierre et Miquelon.

Queremos dar noticia en esta comunicación de unas cartas privadas escritas en Euskara entre 1844 y 1853. Las cartas escritas en Euskara Labortano están dirigidas a un marinero de Ziburu que trabajaba en un barco. Encontramos las cartas en el archivo de las Islas de St Pierre et Miquelon al sur de Terranova, que aunque pertenecientes a Francia están rodeadas de aguas canadienses. Las cartas fueron escritas por familiares y amigos de Jean Pierre Etchepare y su contenido es absolutamente cotidiano. Le escriben acerca de lo que le mandan, de la salud de sus familiares, le dan las gracias por el dinero mandado etc... Las cartas se hallaban en buen estado de conservación cuando me las photocopiaron en 1991. Hemos sabido que un incendio arrasó los archivos al año siguiente. No sabemos si sobrevivieron al mismo.

Palabras Clave: Euskara labortano. Carta. Pescador. Indumentaria. Urruña. Ziburu. St. Pierre et Miquelon.

Le but de notre exposé est de donner des nouvelles d'une correspondance privée, écrite entre les années 1844 et 1853. Les lettres ont été écrites en Basque Labourdin, et elles ont été envoyées à un homme de mer de Ziburu qui travaillait à bord d'un navire. Les lettres se trouvaient dans les Archives de St Pierre et Miquelon, territoire Français entouré d'eaux Canadiennes. Jean Pierre Etchepare reçut les lettres de sa famille et ses amis. Ce sont les problèmes quotidiens, la santé, les remerciements, les choses qu'on lui envoie etc... le sujet de ces lettres. Les lettres se trouvaient en très bon état de conservation quand on me les photocopia en 1991. On a su de suite que l'année suivante les archives ont pris le feu et on ne sait plus qu'est-ce qu'elles sont devenues.

Mots Clés: Basque labourdin. Lettre. Pêcheur. Habillement. Urruña. Ziburu. St. Pierre et Miquelon.

ZIBURUKO JEAN PIERRE ETCHEPARERI ZUZENDUTAKO GUTUNAK

Saint Pierre et Miquelon irlak Ternuako hegoaldean daude Ozeano Atlantikoan, Ternuako bakailaoaren bankuan hain zuzen. Gaur egun administratiboki Frantziako DOM TOM osatzen dute, baina ezaguna da, gutxienez XVI.mendez geroztik euskaldunak joan ohi zirela bakailaotara eta bale harrapaketara ia mende honen azken laurdena arte, Ternuako bankuetara.

1991ean izan nintzen Saint Pierren, eta bertako artxibero den Rodrigue Girardinek¹ era-kutsi eta fotokopiati zizkidan artxiboko gutun batzuen berri eman nahi dugu lan honetan. Gutunak Jean Pierre Etchepare "Latuile" izengoitziz ezagutzen zen marinel baten dokumentuen artean zeuden.

Jean Pierre Etchepare 1826ko uztailaren 15ean jaio eta 1853an hil zen Saint Pierren. Ziburuko Dominique Etchepare eta Marguérite St. Martin ziren bere gurasoak. Bere paperez-tatik jakin genuen, 1846ko abenduaren 21an zerbitzari eta sukaldari zela St. Pierren. Bera hil eta gero inork ez zituen erreklamatu bere ondasunak, horregatixe geratu ziren St. Pierreko artxiboaetan.

Gutunak bere familia artekoek bidalitakoak dira eta guztira 17 fotokopiatu genituen. Ez dakigu, gaur egun gutun horiek existitzen ote diren, 1992ko apirilean artxiboak erre egin baitziren, %20 soilik, errekupera gai geratu zelarik². Marinel horren dosierrean beste gutun asko zeuden, baina euskaraz idatzirk zeudenak bakarrik, kopiati genituen, salbuespen batekin, frantsesetik idatzitako bat ere kopiati genuen, non esaten baitzioten mesedez ez euskaraz idazteko gehiago.

1

Urrugnan eguiña le 2 avril 1844

Etchepare fis

escribatzen darozquiat bi lerro hauc/ adizerat emateco osasunas ungui/ garela guçiac, Tiribarren Tipia/ oraiño estuc chutic gan asqui/ pulqui den arren/

Gaineracoan estut deus berri conda/ datequenic emen, hic arta içan/ duquena alhar-gundu çuquian/ Çeina baita Madame arrabit/ hor bezala emen ere, jaz dembora tristiac eguin tic aguitz sasoinenzat/ Gaineracoan erreçibitu guindican/ hire 2 letrac baiñan hic marquatu/ bacallabic ez eta hire dirururic / Gargoro Jaquintzun aiz hire/ procuraçionea bear dela,/ gauzac eguin bear litezque ahal/ balitz ungui eta Cronprentzeco guisan.

erran bear diot mutilli es tuela/ Mariane Dargaignaratzec haren/ partes deusic erreçibitu bazaquela/ haren fiador jarria çela,/ Çerbitzu errendatzen denian bear/ da oroitu nori den obligacione/ bethi erranen diozu gure partes / igortzen darosquitzu Mariana etche-coac/ 3 galzardi pare, eta emen guelditu/ cen athonra, baldin desiratzen/ balin baduzu guehiago coloresco edo/ churi gastiatuco duc Dargaignaratzequin/ bi ay anayac içanen tut bat ondoco/ eta asqui duc igortzia folaren eta escu muturraren largotasuna ari/ (egi)tian letran,

Yaquinien dugu chehetasuna dirua artzen/denian eta gastiatuco garbitasuna guero

1. Nire eskerrik beroenak Rodrigue Girardineri, St. Pierre et Miquelon, gutun hauen berri eman zidalako.

2. Nova Scotiako "Geomarine Associates LTD." delakoren lehendariak, 1992ko apirilaren 24ean laguntza eske jo zuen Canadako zenbait erakunderengana, horrela zioen: "I gather Les Archives de Saint-Pierre et Miquelon have very recently suffered a disastrous fire and only 20% of the material will be recovered."

(or)hoit çaité bethi cure gastetasunas/ esçarela capable içanen denbora guicietan/ cerbaiten eguiteco ondeiño bear du/ presunac enseatu guero atçemateco çerbait/ estatu gabeco guïçonac gauza guti/ balio dic ortaracotz bear da içan ainitz çuhur, baduc moyana nahi/ baduc egui goberna bethi/ arreba arras ungui duc osasunas eta content/ bere maigorriequin Jadan parebat/ egui dic çidarrestaturic pulitac/ usten haut aldi hundacotz hireberien/ esperantzan plaçer duquen arte hire matanta fidel bici deiño

Marie Josephe Besnard

atxoa hil içan duc le 9 Nôbre/ eta semia escondu le 24 Janvier/ muturr gorrien aispaequin/

Jannemari Guiy hil içan da eg(un)/ hautan miserablia gasteric/ felix Dorraldeguiy espousatu da/ avec Mlle Goiyenech/ Caharrenrequin le 22 Nbre 1844.

2

Urrugnan eguiña le 2 Mars 1845

ene Illoba Maitia

escribatzen darosquitutz bi lerro hauc/ Curi aditzerat emateco gure ossassunas arras/ ungui garela Jaincoari esquer guiac presentian/ desiratzen guinduque handisqui présenteco letra/ hunec ata Cautzia Çuj hemengo familla guïjac/ cure ahaidetan ungui dire salbo cure matanta partitu/ direla erran dutes arreba içatuda bestan haurten/ amitchi canpuan atzman du, aita içatu çaiku/ icusten haurten 3 aldis behin Charles Carnier equin,/ mutil arribatu çitzaicun haurten daquisuna/ 2 urtheren bouruan, marcatu Cinduen/ horren 10 liberac ethorri cirela guibelat, galduť içan/ diogu eta es omen tu erreçibitu Berac,/ othoi bear diosu içanaraçi presuna bear batentzat/ esda guti amari igortzeco cituen dudaric es da/ galdegin içan tu iya erreçibitu quintuen/ erran diogu ezets,//

nola guero icussi baitugu cure letran guibelat/ ethori çirela othoi arthuco dusu pena/ içanarasteco posible bada//

aurthen terrible sartze gaichtoa içan du/ Dualde Capitaiña, Bayonaco barran etzitu/ omen dute guïjec, diote haurten Cure/ Capitain Chaarra eldudela orrat, Bear bada/ icusico dusu, bichintcho 3em egui darocu bisita/ Aristeguirat ungui estonitu baiquinen eta estimatu Jaunaren atentzionen denbora berian/ Cure berriac eman çaosquigun chequi Cer seguidetua/ çaren ungui atzeguin dugu parte ortas/ ungui goberna çaité guissa hortan eta/ içan chuur gausa suerte guïjen gainian/ menayatua den presuna ainitz aguiten- du/ guisa ortan Conpontzen baçare Çerbait eguiendusu/ Doyanbehere astian erran dudan beçala ethortzen/ ballin bada ungui eguien diosu bisita baten eguitia/ Mereci du curetzat duen artas erran Çaoocun/ etseçaquela hobequi plaser nion Çu egui caituen baiña/ Mutilen Contus igortzen dausquitzugu Cure/ effetuac çeinac baitire 4 ahorra coloresco/ 4 galzardi pare 2 tricotia lana liburuac 6/ 2 ahorra eta 2 galzardi trusatube pare trusatuc paperian/ bertze 2 ahorra eta 2 galzardi pare eta 2 tricotia/ foulard berri batian orrec adresa gainian,/ liburuac berac paqueta batian,/ ola despeituac dire etche- tic, guero esdaquigu/ gardetan nola utzico tusten//

Cureganic artuac diren guïjac dire Goiyetchen ganic/ Comesarioaren ganic ...100f

.....	33,, 10 c
Guçis eldu baita.....	133,, 10 c
Cureganat egorri direnec ekuartzendute	113,, ^{oo} /
arrasta artzeco 20,,106	

ortaric quen erran çinduen becala enetzat bacalau erosteco 10,, / arrasta beris arreco
10..10y orra ustes Contuac cheequi/

finitzen dut cure errepustaren/ espantzan plaçer duzun arte/

Marie Josephe Besnard

Gure haurra galdu içan dugu le 31 juilet 1844/ oroitzapena guçien partes othoi/

Le 2d fevrier aita içatu çicaitqun partiyadako/ bisitan eta arrebaren gonbidatzen igande-cotz/bascitarat gana dugu beras goician,,/

aitaren erranac iduridu passayan heldu dela horrat eta elduden urthian hor guelditzeco,/ Çeorrec hobequi yaquinen tutzu guçiac,/

Dargaignaratz aribatu cen à Marseille/ eta diote berris Martiniquarat doala berris./

atzo hil içan da Mme Larreguy Donibanen eta eraman dute biriurat enterratzecho/

igortzen tut athonren santillonac letraren barnian/ icusteco nolacuac diren bacochetic bia/ galzardiac igual colore bacochetic 2 pare/ oiec ola ungui badire guidatuco çare aintzinat/ guisa hortan.

3

Urrugne le 12 avril 1846

etchepare fils

escribatzen darosquitutzut/ bi lerro hauc, nola leenago/ eçin igorri baithitugu effetu oriec Çeinac baitire 4 athonra/ 2 galxardi lena pare çintura bat/ espagna tollossatic etorría/ oraiño preçioa estaquigu,/ eldu dire Doyanberequin guc uste/ baiño lasterrago pres... ai nais/ aurten baguiñouen berria franco/ marjanari 2 anaya escontzen çaisco/ candelacoa etcheco andregaiya equin/ Capitaiña labastaen alaba gastena/ ortaco lan handiac çiren aisteguin/ efetu oitan diren esscasac igorrico/ tutzu letran, elduden urthian/ asti abia içanen da aguian// estu çuc uste dusun beçain errech/ gauça oien pasatzia batetic unat/ bertzetic bayonarat// lehen baguinduen mutilen/ erresurtxa bainan orai es/ esagutzen esten jendetan/ esda posible fidatzia asco puisques/ naiago guinduque hor norbait/ cargatzen başındu presuna segura/ dena, marquatuto dusu errçibitua/ Contuac igorrico tugu leen/ comoitatian aitari bacen çerbait/ orroitzapen baiñan esta denbora asqui, icusten curiac ere esdirela guçiac hor,/

usten çaitut haldi huntacots/ gure erespetauc bientzat/

mari Joseph Besnard

cörtzi orenetan partitzen nais çure paquetaequin Donibanerat arratxeán

4

Urrugne le 2 Mars 1845

Laagun maitia bilero eguiten tiat/ hiri ene axeguinen marcaxeco aditu diat ungui plaçatua haiçela eta osasuna dukela hire biletra/ içatu tiat erraten nauquela 3 libera erreçibituko/ tudala eguin tiat eta erraten ninduken igorxeco/ 100 çigarro puru çhipui Igorxen tiat muilequin/ 4 paperretan bacoixian 25 yaquin naico diat/ eia erreçibituko tusken osoric gastigatuconauc,/ comoitatia duquenian; gaineratecoan erraiten nindu-/ quen hemengo beriac çheehiago emaiteco esduc/ hemen çheequi emaiteco beriric migeria

eta/ elcar eçin icussia baiçic; hemengo beriac/ biçi garenac ossasunarequin caussixen gaituc baxubec/ flacosco icana gatic; ni ganden udan egotu nauc/ llabete bat çangotic mines bainan orai/ ossasunadia Jaincoari esquerrac degiraxen niequec hic/ ere hala içaitia; erremegiaxen hausquit 3 f/ geldixen nauc hic placer placerduquen arte hire cer-bixari

Ignace Techeverry

5

Ciboure le 25 Avril 1847

Ene illoba Maitea

Mari Callant Vve Carmier

Lameurec nahi luque hits bat eman letra huntan/ acordatcen diat.

5bis

Ene lagun Maitia

Osoqui estonituba nauc hire ichit tasun gaisqui/ adituba eta hire ingrat tasun esantsiya-tubas/ eguiyasqui frogaric clarenes ene ide eta pentsatceco/ menerac hetas trunpatuba nauc nitas denas becinbatian/ hagnits pena sentitcen dudan haren hire Matanta/ hiretçat urtudena batere sobraric errangabe/ eta hic hunentcat duquen amodioy escasa pentsa-ahal/ deçaqueq estuquela es gero orai brillatcen baduc/ ere bethi ehinsella hola brillatus etorrico here Matan/ ta den besan charmanta isan es balits Ume hots eta oroitcapen gabeco bat hais Jaincoac olaco seguida/ eman hau hire Yenden socorritçeco eta edunduc/ trufatçen hacela probediencyciaren arranyubec/ eta bisquitartian Jaincoaren legues sorosqui hais/ obligatuba. Usten haut hemen bertçe asco gausacoran/ nahiyac bainan esperantça diat icanen duquearto/ seriyas eta handi bat hire Matantes

Besarcatcen haut

Jean Pierre Lameur

6

Fait a Ciboure le 3 Mars 1845

Ene ylloba Maitea

escribasen dausquisut bi lero hauc/ suri ene eta ene haur gachoén berriyen/ ossasuna dugu Jaincoari esquer ganeracoan/ probediencyiac beharco nau urruçari/ erresibitu nuben sure letra eta suc egorri/ puscac haurrensat den gausaric chumena/ fagore da malurusac direlacos beras ene/ ylloba Maitea desirascan dausut ossasuna/ eta issan Caite guison galant es gare/ betico mundu huntan manera gusiyes behar/ dugu beras seriyosqui pensatu escriba nau berse haldiyan asqueneco aldiyan baina/ cheequiyago sure berri...../huntan acabasen dut besarcasen/ caitudalaric bhosaren herditic naiselaric/ sure Matanta tonbarano

Sure Carmix

Bayonne le 23 fevrier 1851

Madame mury garat/ Ezcribatcen dainat by/ lerro ene berien hiry/ emaiteco ossa-souna on/ batian causitzen naun/ desiratzen dinat ene/ bihotz gouciez hy erre hala cau-sitsiaz hiri/ fiamilia gousiarequin/ errecibitu ditinat hic/ igorry 15 liberaz/ kaisorrequín eta hire/ complimendou edera/ erre bay errecibitou/ dinat hiri complimenda/ ederra erran doudala/ 80 hoy libera hartu/ oussy ditoudala/ St pierretan,/ bay erran dinat eta/ hic, erre clereago equinen/ houben, nyry erre 40/ liberen igortsia 3 ourthez/ cerbitsatou ondouban,/ es, soury oray erre behariz/ aberastou haiz, edo/ ezcoubetan outsa jarry/ ez doun eran behar/ aberatzou haicela ez hiceno/ capable nerre 40 libera/ igortceco ez doun baderen/ erranen hor sorac/ outsiren ethory naicela/ phassaia pagatou dinat/ eta sorric ez// outsy eta hartsiac bay/ eta nyry ez egor/ etchepareren, complimentua/ ezcondade-la nahy/ badou bere salbayarequi/ Marthinien alaberiquin,/ egon den bezala halbaiz/ ezagoutou gabe ezcondoudela/ lehen bay lehen niz, ez ezcondou nahiz nagola/ equin, gabe eta hora/ dagola nihorc ez nahiz/ milla goraintsy catalin/ eta erremesiatcen duda-la haren borondate ona ene/ alderat eia ouztesoula/ ene galidia egorri eta ní/ dezohoratsia edo ene/ phazayacerem paga/ bat douc. Cery ez//soupir merchi gabe/ igortcen dinat 2/ moceinez bat hiretsat/ eta bertsia matanta/ mary haurarentsat ene/ orhoitsapena milla/ goraintsi matantary eta ossabary aiquicen/ ez dousoube izeinen/ dezohoreric ny St/ Pieretan éthoriric/ souben adisquyde/ fidela//

Marya Santouly

cibourun marchoaren 6 an 1853 an

ene adisquide Dominique

errecivitu nouen cure 1851 co letra eta/ cuc erran vecala nahi nuben cure alabari/ etchia erremetitu eta estu içatu borondateric/ mandatuba bederen harçeco ere eta Martin/ ondicola da cure etchian 1849 an uriaren 5 an sartuba eta cor diu 77 libera eta cein borch/ citeque pagarastera çure procuranxa bat/ gabe contribucionearc ere nero-nec pagatu ditut esta çorric 10 libera baicic es dut lataric chaindatu ceren estalquia ungi baitu. otoisten çaitut ematias confidenzia/ duçun bati cobrakeco escuba

cure cerbixari Manuel Sanzberro

Hamazazpietatik zortzi aukeratu ditugu, lau Urruñan idatziak, hiru Ziburun eta zortigarrrena Baionan. Gutunak urtean behin idazten zizkiotela dirudi. Kontuan hartu behar dugu abenduan hasi eta oraindik maiatzean jelaz inguraturik aurkitzen direla paraje haien alde batetik, eta bestetik, arrantzaleak apirilaren azken aldean abiatzen zirela Ternuako bankueta-ra, sei hilabetetako. Badirudi bada, ez zegoela gutunak jasotzeko aukera haundirik. Gutun horietako bat, azkena hain zuzen bere aitari, Dominiqueru zuzendua da eta gaia guztiz des-berdina du.

Denak, gutun klasikoaren itxura gordetzen badute ere, ez dute modu berdinean adierazia data eta agurra. Marie Josephe Besnard bere izebak "matanta" berak dioen bezala-1844 eta 1845eko gutunak "*Urrugnan eguiña le 2 avril 1844*" eta estruktura bera "*Urrugnan eguiña le 2 Mars 1845*" erabiltzen du. Beraz, formula nahasi bat erdi euskara erdi frantsesa erabiltzen du guk zenbakia 1 eta 2 emandako kartetan. Hirugarrenean aldiz formula erabat frantsesez ematen du Urrugne le 12 avril 1846. Gainontzeko 4, 5bis, 6 eta 7 gutunek data

erabat frantsesez dute: “*Fait a Ciboure le..., Bayonne le...*” etab... Zortzigarrenean aldiz, bere aitari zuzendutakoan, alegia, data erabat euskaraz dago: “*cibourun marchoaren 6 6an 1853 an*”.

Agurrari dagokionez formula ugariak erabili zituzten:

“*usten haut huntacotz hireberien esperantzan plaçer duquen arte hire matanta fidel bici deiño*”

“*finitzen dut cure errepustaren espantzan plaçer duzun arte*”

“*usten caitut haldi huntacots gure erespetuac bientzat*”

“*hic placerduquen arte hire cerbixari*”

“*Besarcatcen haut*”

“*hantan acabasen dut besarcasen caitudalaricbhosaren herditic naiselaric sure Matanta tonbarano*”

“*souben adisquyde fidela*”

“*cure cerbixari*”

Gutunak lapurtera kolokialean idatzirik daude, lehengo eta behin ortografiari buruz hitz bi: frantsesaren ortografiaren ordaina zen euskara garai hartan, ezta bada, harritzeakoa idazteko era guztiak aurkitzea gutun hauetan.

/tz/ /tc/ s; x; tç eta tz hizkiz agertu ohi dira adieraziak gutunetan.

/ç/ zedila gehienetan ez dute adierazten eta irakurketa nekeza bihurtzen da.

/q/ erabiltzen dute, bokalez jarraitua hala ez.

/v/ gutun batean bakarrik agertzen da.(erreccivitu)

/u/ adierazteko u zein ou erabili ohi dute.

/p/ eta /b/ aurretik beti m jarri ohi dute.

/h/ ez dago beti bere lekuaren eta kasu askotan falta da.

/g/ atzetik u; erabiltzen dute. Frantsesaren antzeko balioa ere, ematen diote (migeria)

/r/ frantsesaren ahoskatzea nahasia dutela argi dago ez baitute bereizten dardarkari aniza eta simplea askotan, eb.: lehenengo kasuan: beriz, aribatu, erespetuak, lero, beriak, beririk, berien, edera, idazten dute; bigarrenean berriz: erre (ere adierazteko), nerre (nire adierazteko) etab...

/x/ eta /tx/ordez ch eta tch erabiltzen dute.

/ss/ s simplearen ordez.

/ñ/ eta /gn/ bi moduak erabiltzen dituzte.

Ahalera aditzetan /k/ agertzen da batzutan.

Fonetismo ugari agertzen da, *yod* eta *wau* erdi kontsonanteak maiz agertzen dira, hala nola: anayak, eskubetan, berriyen, probediensiyak, guziyez, seriyoski, aldiyan, xekiyago, egiyaski, zubetaz, esantsiyatubaz, ordubetan, ispiritubaren, amodiyoak, nuben.

Orokorean, hots arteko sandiak, batez ere /z/ ren ondorengoa, askotan bete dira, esate baterako: eztuk, egin tik, ez tuela; badira baita ere, beste modutakoak, adibidez: baitire...

Deklinabidea:

Espero zitekeen bezala adlatiboaren eta genitiboaren erabilera berezkoa agertzen da gutunetan zehar. Horrela, *Baionarat, gibelat, bisita baten egitea, arrebaren gonbidatzengandekotz bazkaitarat, Martinicarat, aintzinat, etab...*

Ergatiboaren falta ere somatu dugu oso gutxitan baldin bada ere, bi adibide hauek argiak dira:

*sartze gaiztoa izan du Dualde Kapitaiña (k)
manaiatua den presuna (k) ainitz egiten du*

Aditza:

Erraz aurki ditzakegu lapurteratzat jotzen diren aditz formak hala nola: *escribatzen darozkiat, darozkitzut, eztuk gan, estuk konda datekenik, etzarela kapable izanen, plazer duken arte, izatu zaiku, egin daroku, eman zauzkigun, eginen duzu, erran zaukun, igortzen dauzkitzugu, jakinen tutzu, ezkontzen zaizko, nahiago ginduke, egotu nauk, desiratzen niekek, izaitia, plazer duken arte, edun duk, desiratzen dauzut, eskribatzen dainat, errezipitu ditinat, eginen hu(b)en, ez dun erranen, eztu izatu, direlakoz...*

Han hemenka beste euskalkietan gertatu ohi den bezala aditz erabilera ez zuzenak ere topatu ditugu: *erraten naukela, erraiten ninduken, eskriba nasu...*

Hitanoa:

Gutun batzutan hitanoa erabiltzen da, beste batzutan berriz ez. Oso bitxia deritzogu bere izebak, matantak, idatzitako lehenengo eskutitzean hika idaztea: “*darozkiat, eztuk, hik, denbora tristiak egin tik, errezipitu gintikan hire 2 letrak*” etab., hikako adizki eta izenordeak agertzen baitira; eta hurrengo gutunetan berriz: “*darozkitzut, zuri, zure matanta, dakizuna, othoi behar diozu, ikusiko duzu*” etab. zuka egitea, Bere lagunek hika idazten diote: “*bi lerro egitentiat, hiri, aditu diat, hire bi letra izatu tiat*” esate baterako Ignace Techeverryren gutunean aurki daitezke: eta “*estonituba nauk, hire itxitasun, hire matanta hiretzat, dezakek*”, Jean Pierre Lameuren gutunean. Bere beste izebek zuka egiten diote. Marya Santoulyren gutuna hitanoa erabiliz, beste emakume batizuzendua dago, baina bertan Etchepare agertzen da bere konplimendua ez baitu onartzen. Azkeneko gutuna Dominiqueri zuzendua zuka idatzia dago.

Sintaxia:

Alde batetik erlatiboaren erabilera berezia aurki dezakegu: zeinak bait... eta bestetik deklinabidearekin lotutako forma bereziak:

*Zerbaiten egiteko,
arrebaren gonbidatzengandekotz bazkaitarat,
zeinak baitire 4 atorra kolorezko*

erdarakadak joskeran:

*atxoa hil içan duc le 9 Nobr
 Dorraldegi esposatu da avec Mlle Goienetx...
 Dargainaratz arribatu zen à Marseille...
 ezta posible fidatzia asko puisques...*

Hiztegia:

Atal honi buruz bi zerrendatan sailkatu dugu hiztegia. Alde batetik lapurterari dagozkionak eman ditugu eta frantsesetik mailegatutakoak bestetik.

Lapurtera:

aguitz
 ainitz
 aintzinat,
 amitchi
 arras
 asqui
 atçemateco
 bacochetic
 ballin/ balin bada
 barnian
 bertçe
 besta
 bichintcho
 bisquitartean
 caussixen
 cheetasuna
 chume
 chutic
 çortzi orenetan
 deusic
 emaiteco
 enetzat
 erran
 gana dugu
 gastiatuco
 guibelat
 guti
 hagnits
 hetas
 nihorc
 ondeño
 orai
 oraiño
 ortaracotz
 othoi bear diosu
 puliqui
 tipia
 ungui

Maileguak:

adresa
 atentzione
 brillatcen
 capable
 çintura bat
 clereago
 comoitatian
 complimenda
 conprenitzeo
 content
 contribucioneac
 effetuac
 enseatu
 enterratzeco
 errecibitu
 erremegiazen (erremesiatzen? merci esaten)
 erremetitu
 erresurtxa
 estonitu
 fiador
 foular
 galzardi trusatube
 guisan
 ide
 largotasuna
 lena (artilla)
 letrac (gutunak)
 malurusa
 matanta
 moyana
 partitu
 phassaia
 plaçer
 probedyentzia
 procuraçiona
 puisques
 salbayarequi
 santillonac,

GUTUNEN GAIA

Lehenbiziko hiru gutunetan, bere izeba Marie Josephe Besnardek idatzitakoetan, alegia, herriko istorioen berri ematen diote karta amaitu eta gero, heriotzak, ezkontzak etab. Gutun berean familia nola aurkitzen den esateaz gain bidalitakoaren zerrenda zehatza ematen diote. Segur aski garai hartan ere, gauzak desagertzen ziren postetatik. Lehenengo gutunean: *hiru galtzerdi pare, eta bertan lagatako ahorra, bidaliko dizkiotela horrela nahi izanez gero, bigarrenean zehatzagoa eta luzeagoa da zerrenda: lau atorra kolorezko, lau galtzerdi pare, bi trikota lana, liburuak sei, bi atorra eta bi galtzerdi trusatube, pare trusatuak paperian, bertze bi atorra eta bi galtzerdi pare eta bi trikota, fular berri batean.* Hirugarrenean *lau atorra, bi galtzerdi lena pare eta zintura bat espagna tolossatic etorria bidaltzen dizkiote.* Bigarren gutunean gauzen prezioak agertzen dira gainera, bai eta berak bidalitako dirua ere.

Izebak akordatua zuen bezala dirua gordetzen du, berak dioenez “*bakalau*” erosteko. Bere lehengo gutunean berriz, “*bakallabik*” dio. Oso bitxia iruditzen zaigu hitz honen aldakia.

Gutunen amaieretan horrelako kontseilu antzeko batzuk egiten dizkiote gizon ona izan dadin.

Laugarren gutuna bere lagun batek idatzia da eta honek ere zerbait bidaltzen dio eremu latz eta izoztu hartan zegoenari: berak eskatutako zigarro puruak bidaltzen dizkie eta bide batez bere osasunaren berri ematen ere.

Bosgarren gutunaren bigarren zatia eman dugu hemen. Arrantzalearen beste lagun batek idazten dio bere matantak bidaliko dion gutunarekin batera eta errieta egiten dio bere matantari idazten ez diolako. Gutun gehienetan “moralina” antzeko zerbait agertzen da.

Seigarren gutuna bere beste izeba batek idazten dio eta eskerrak ematen dizkie bidaltako diruagatik eta honek ere horrelako moral gomendio batzuk ematen dizkie.

Zazpigaren gutuna, emakume bati zuzendua dagoela dirudi, baina, testua irakurtzean badirudi emakume horren bitartez kunplimendu batzuk heldu zaizkiola gure arrantzalearen partez: “...niri ez egor Etxepareraren konplimendua, ezkonda dela nahi badu bere salbaiareki, Martinen alabarekin, egon den bezala...” Badirudi gainera Maria Santuli emakume hau, St. Pierren izana zela “...ez duzube izeinen desohorerik ni St Pieretan etorririk...” ongi ezagutu bide zuen bada, gure arrantzalea.

Azkeneko gutunak Dominikeri zuzendua, aitari, alegia, gai oso desberdin bat du. Bere lagunak Ziburuko etxea bere alabari eman behar ziola dirudi eta berak ez du ezer jakin nahi eta bitartean alokatu du. Bukaera aldian teilatuaren konponketaren gora behera batzuk azaltzen dizkie.

BIBLIOGRAFIA

AZKUE, R.M^a de: *Diccionario Vasco-Español*, faksimile Bilbao 1989 (Bilbao 1905).

CAMPION, Arturo: *Gramatica Bascongada*, Tolosa 1884.

LAFITTE: Pierre: *Grammaire Basque*, faksimile Donostia 1979 (1944).

LAFON, René: *Le système du verbe Basque au XVI^e siècle*, faksimile Donostia 1980 (1943).

LHANDE, Pierre: *Dictionnaire Basque-Français*, Paris 1926.

MICHELENA. Luis: *Orotariko Euskal Hiztegia*, Bilbo 1987-1995.

SARASOLA, Ibon: *Hauta-Lanerako Euskal Hiztegia*, Donostia 1984-1995.

URKIZU, Patrizio: *Pierre D'Urteren Hiztegia*, Londres 1715, Donostia, 1989.